baita. Talde horrek langabeen guztizkoaren ia erdia hartzen du EIn. Bi horien balantze gisa, eduki-errorearen arabera, talde hori %22,1ean azpizenbatesten da (20.000 bat gizabanako). Kopuru horri, bestalde, aurretik argitaratu zen zifra batuko balitzaio, guztira 100.000 bat langabe izango lirateke, eta ez argitaratu ziren 80.000 langabeak.

Arrazoi berarengatik, edukiko erroreengatik, guztizkoari 8.300 bat landun gehitu behar zaizkio, eta horiei estaldurako erroreengatik azpizenbatsi diren 5.200 landunak erantsi beharko litzaizkieke (beste bi modalitateetan ia ez dute eraginik); beraz, guztira, 890.000 landunetik gora izango lirateke, eta ez 880.000 inguru haiek.

## 3. Variaciones en las modalidades de relación con la actividad (OIT) de la población de 16 y más años. 1er trimestre de 2002

## Aldakuntzak 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren jarduerarekiko erlazioaren modalitateetan (LANE). 2002ko 1. hiruhilekoa




**Iturria**/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

En el gráfico 3 se refleja la alta consistencia de las modalidades de los ocupados y los inactivos, con escasos desplazamientos entre ellas. En el caso de los parados, la consistencia desciende, y se aprecia que hay individuos así clasificados en la EN que según la ER son ocupados (6,7%) y, particularmente, inactivos (16,6%, sobre el total de los parados en la EN).

La relación con la actividad, tanto según el criterio OIT como el criterio Eustat, es una característica que se genera en función de varias. Concretamente, un individuo se clasifica como parado siguiendo la definición de la OIT, cuando:

- no ha trabajado en la semana de referencia, ni tiene un empleo, y además
- está disponible para trabajar (en un plazo de dos semanas) y también
- ha realizado gestiones de búsqueda de empleo en las cuatro últimas semanas,
- del tipo que Eurostat ha determinado como activas (estos dos últimos criterios aplicados a partir de 2002).

Como ya se verá en el apartado de las variables referentes a la búsqueda de empleo, las diferencias en la clasificación de estas

3. grafikoan, landunak eta ez-aktiboak modalitateen sendotasun handia islatzen da, eta haien artean mugimendu gutxi daude. Langabeen kasuan, sendotasuna jaitsi egiten da, eta antzematen zaie IAn horrela sailkatuta dauden gizabanako batzuk, EIren arabera, landunak (%6,7) eta, bereziki, ez-aktiboak direla (%16,6, IAko langabeen guztizkoaren aldean).

Jarduerarekiko erlazioa, LANE irizpidearen zein Eustat irizpidearen arabera, aldagai askoren arabera sortzen den ezaugarria da. Hain zuzen, gizabanako bat, LANEren definizioari jarraiki, langabe gisa sailkatzen da, baldin eta:

- erreferentziako aldean lanik egin ez badu, eta enplegurik ez badu, eta gainera,
- lan egiteko prest badago (bi asteko epe batean), eta
- azken lau asteetan enplegu-bilaketako kudeaketarik egin badu, hau da,
- Eurostatek aktibotzat zehaztu duen motako kudeaketarik egin badu (azken bi irizpide horiek 2002tik aplikatu dira).

Enplegu-bilaketari buruzko aldagaien atalean ikusiko denez, aldez aurreko ezaugarrien sailkapenean dauden aldeek zenbait

características previas producen la inestabilidad de algunas modalidades, en particular los desplazamientos entre parados e inactivos, cuya diferencia estriba en que hayan realizado o no gestiones de búsqueda de empleo, o que estén disponibles o no para trabajar respectivamente.

modalitateren egonkortasun-eza eragiten dute, batez ere langabeen eta ez-aktiboen arteko mugimenduak. Batzuen eta besteen arteko aldea honetan datza: enplegu-bilaketako kudeaketak egitean edo ez egitean, edo lan egiteko prest egotean edo ez egotean, hurrenez hurren.

### 2.4. Características de la población ocupada: sector de actividad, situación profesional, profesión, tipo de jornada, horas trabajadas y tipo de contrato.

### 2.4. Biztanleria landunaren ezaugarriak: jarduera-sektorea, lanbide-egoera, lanbidea, lanaldi-mota, lan egindako orduak eta kontratu-mota

En general, las variables que clasifican a la población ocupada son bastante consistentes. Resulta ser el caso del sector de actividad, ya que el 92,3% de los ocupados se clasifican en el mismo sector.

Oro har, biztanleria landuna sailkatzeko erabiltzen diren aldagaiak nahiko sendoak dira. Horixe gertatzen da, hain zuzen, jarduera-sektorearekin, zeren landunen %92,3 sektore berean sailkatzen baitira.

4. TAULA / 4. TABLA — BJA. ERREPIKAPEN INKESTA / PRA. ENCUESTA DE REPETICIÓN — 2002

**16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA LANDUNA, JARDUERA-SEKTOREARI JARRAIKI, BALIDAZIO-EGITURAREN ARABERA. 2002KO 1. HIRUHILEKOA**
POBLACIÓN DE 16 Y MÁS AÑOS OCUPADA POR GRANDES SECTORES DE ACTIVIDAD SEGÚN LA ESTRUCTURA DE VALIDACIÓN. 1ER TRIMESTRE DE 2002

| | | **Erregistro komunak** Registros comunes | | **Erregistro guztiak**/Todos los registros | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **Eduki-erroreak** Errores de contenido | | | **Estaldura-erroreak** Errores de cobertura | | |
| | **Emaitza argitaratuak** Resultados publicados | **SOI** ICG | **BSE** PIC | **Zuzen sailkatuak** Correctamente clasificados | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia |
| **Guztira**/Total | **878,9** | **92,3** | | **87,9** | **7,4** | **7,4** | **0,0** | **6,2** | **4,7** | **+1,5** |
| **Nekazaritza**/Agricultura | 14,0 | | 84,8 | 84,8 | 38,8 | 15,2 | +23,6 | 17,9 | 0,0 | +17,9 |
| **Industria** | 251,9 | | 85,7 | 81,7 | 6,7 | 13,7 | -7,0 | 2,1 | 4,7 | -2,5 |
| **Eraikuntza**/Construcción | 79,9 | | 85,4 | 83,7 | 18,0 | 14,3 | +3,7 | 13,0 | 2,0 | +11,0 |
| **Zerbitzuak**/Servicios | 533,1 | | 96,8 | 91,7 | 5,2 | 3,0 | +2,2 | 6,8 | 5,3 | +1,5 |

**Iturria**/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

En el gráfico 4 aparece que la modalidad que más se clasifica en ambas ocasiones de la misma forma es la de servicios (92,3% de los individuos), mientras que los otros tres sectores tienen un porcentaje de idénticamente clasificados muy similar (próximo al 85%). Además, hay un desplazamiento entre el sector de servicios y cada uno de los otros tres, en el sentido de que hay individuos que en la EN son clasificados en agricultura, industria o construcción y en la ER aparecen en la modalidad de servicios, en porcentajes próximos al 10% en cada modalidad. También hay algún desplazamiento de este tipo de la construcción a la industria.

4. grafikoan agertzen denez, bi kasuetan era berean gehien sailkatzen den modalitatea zerbitzuena da (gizabanakoen %92,3); beste hiru sektoreek, berriz, berdin-berdin sailkatuen ehuneko oso antzekoa dute (%85etik hurbilekoa). Gainera, mugimendu bat dago zerbitzuen sektorearen eta beste hiru sektoreetariko bakoitzaren artean; izan ere, IAn zenbait gizabanako nekazaritzan, industrian eta eraikuntzan sailkatzen dira, eta EIn zerbitzuen modalitatean agertzen dira, %10etik hurbileko ehunekotan modalitate bakoitzean. Horrelako beste mugimendu batzuk ere badaude, eraikuntzatik industriara, hain zuzen.

Variaciones en las modalidades de grandes sectores de actividad de la población de 16 y más años ocupada. 1er trimestre de 2002

**4.**

**Aldakuntzak 16 urte eta gehiagoko biztanleria landunaren jarduera-sektorearen modalitateetan (LANE). 2002ko 1. hiruhilekoa**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

Los errores en los sectores de actividad son los propios de la codificación de la actividad de los establecimientos. En primer lugar, pueden existir problemas producidos por la falta de exactitud en la información del encuestado. También puede existir falta de información para la codificación y una asignación de código, por lo tanto, errónea. O la propia codificación podría ser incorrecta.

Jarduera-sektoreetan dauden erroreak establezimenduen jardueraren kodeketari dagozkionak dira. Lehenik, inkestatuaren informazioaren zehaztasun-ezak eragindako arazoak egon daitezke. Era berean, kodeketari buruzko informazio-eza ere egon daiteke, eta, beraz, kodearen egozpena akastuna izango da. Edo kodeketa bera okerrekoa izan liteke.

– La forma que toma la relación laboral del individuo con la empresa, o situación profesional, se divide en 6 modalidades: empleadores o empresarios, autónomos, ayudas familiares, cooperativistas, asalariados y otras situaciones. El Índice de Consistencia Global de la variable es también elevado (92,6%).

– Gizabanakoak enpresarekin duen lan-harremanak hartzen duen era, edo lanbide-egoera, 6 modalitatetan zatitzen da: enplegatzaile edo enpresaburuak, autonomoak, familia-laguntzak, kooperatiba-kideak, alokatuak eta bestelako egoerak. Aldagai horren Sendotasun Orokorraren Indizea ere altua da (%92,6).

5. TAULA / 5. TABLA — *BJA. ERREPIKAPEN INKESTA / PRA. ENCUESTA DE REPETICIÓN* — *2002*

**16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA LANDUNA, LANBIDE-EGOERARI JARRAIKI, BALIDAZIO-EGITURAREN ARABERA. 2002KO 1. HIRUHILEKOA**
POBLACIÓN DE 16 Y MÁS AÑOS OCUPADA POR SITUACIÓN PROFESIONAL SEGÚN LA ESTRUCTURA DE VALIDACIÓN. 1ER TRIMESTRE DE 2002

| | | **Erregistro komunak** Registros comunes | | **Erregistro guztiak**/Todos los registros | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **Eduki-erroreak** Errores de contenido | | | **Estaldura-erroreak** Errores de cobertura | | |
| | **Emaitza argitaratuak** Resultados publicados | **SOI** ICG | **BSE** PIC | **Zuzen sailkatuak** Correctamente clasificados | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia |
| **Guztira**/Total | **878,9** | **92,6** | | **88,2** | **7,1** | **7,1** | **0,0** | **6,2** | **4,7** | **+1,5** |
| **Enplegatzaileak**/Empleadores | 29,6 | | 83,4 | 83,4 | 22,7 | 16,6 | +6,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **Autonomoak**/Autónomos | 112,0 | | 82,2 | 77,7 | 18,3 | 16,8 | +1,5 | 3,5 | 5,6 | -2,1 |
| **Familia-laguntzak**/Ayudas Familiares | 6,4 | | 0,0 | 0,0 | 31,1 | 40,9 | -9,8 | 67,7 | 59,1 | +8,6 |
| **Kooperatiba-kideak**/Cooperativistas | 22,8 | | 69,2 | 59,1 | 12,0 | 26,3 | -14,3 | 0,0 | 14,6 | -14,6 |
| **Alokatuak**/Asalariados | 707,7 | | 96,2 | 92,6 | 1,8 | 3,6 | -1,8 | 5,6 | 3,8 | +1,8 |
| **Bestelakoak**/Otros | 0,6 | | 100,0 | 100,0 | 790,9 | 0,0 | +790,9 | 407,9 | 0,0 | +407,9 |

**Iturria**/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

Según los resultados, no se ha producido ninguna coincidencia de ocupados clasificados como ayudas familiares (PIC = 0%). En el otro extremo, en los ocupados con otras situaciones profesionales la coincidencia es total (PIC = 100%) aunque se trata de una modalidad con una frecuencia muy marginal, que provoca errores de contenido y cobertura del 800 y 400%, respectivamente. La coincidencia es elevada en los asalariados (96,2%) y es aceptable (superior al 80%) en los empleadores y los autónomos. Apenas alcanza el 70% en los cooperativistas. El número de asalariados está subestimado en los resultados en un 1,8% por errores en la clasificación, pero en la misma proporción se sobrestima por errores en la cobertura, con lo cual el resultado final se compensa.

Emaitzen arabera, ez da inolako bat-etortzerik gertatu familia--laguntza gisa sailkatutako landunetan (BSE = %0). Beste muturrean, beste lanbide-egoera batzuk dituzten landunetan, bat-etortzea erabatekoa da: BSE = %100, nahiz eta maiztasun oso marjinaleko modalitatea izan, %800 eta %400en eduki- eta estaldura-erroreak eragiten baititu, hurrenez hurren. Bat-etortzea altua da soldatakoetan (%96,2), eta onargarria (%80tik gorakoa) enplegatzaile eta autonomoetan. Ia ez da %70era iristen kooperatiba-kideetan. Emaitzetan, alokatuen kopurua %1,8an dago azpizenbatetsita, sailkapen-erroreengatik, baina proportzio berean gainzenbatesten da estaldura-erroreengatik; hori dela eta, azken emaitza berdindu egiten da.

Existen desplazamientos entre las modalidades de la variable, destacando los que se producen entre los empleadores y los autónomos, en ambas direcciones, y entre los autónomos, los asalariados y cooperativistas tomados conjuntamente. Sin embargo, la principal es la que se produce entre los declarados ayudas familiares y los autónomos, desplazamiento que quizá esté exagerado por el poco peso de la modalidad de los del primer caso.

Mugimenduak daude aldagaiko modalitateen artean, eta aipatzekoak dira enplegatzaileen eta autonomoen artean gertatzen direnak, bi noranzkoetan, eta autonomoen, alokatuen eta kooperatiba-kideen artean, guztiak batera hartuta. Nagusia, dena dela, familia-laguntza aitortuen eta autonomoen artean gertatzen dena da, baina mugimendu hori agian hanpatuta dago, lehen kasukoen modalitateak duen pisu eskasagatik.

- La profesión u ocupación de la población ocupada se clasifica en la encuesta en 9 modalidades (grandes grupos según la Clasificación Nacional de Ocupaciones 1994). El Índice de Consistencia Global es mucho más bajo que en el resto (no alcanza el 70%), probablemente debido a las dificultades en su recogida y codificación.

– Biztanleria landunaren lanbidea edo okupazioa 9 modalitatetan sailkatzen da inkestan (talde nagusiak, 1994ko Lanbideen Sailkapen Nazionalaren arabera). Sendotasun Orokorraren Indizea gainerakoetan baino askoz baxuagoa da (ez da %70era iristen), ziur aski aldagai horren bilketan eta kodeketan izandako zailtasunengatik.




Iturria/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

- Destaca la baja consistencia de la variable que mide las horas trabajadas en la semana de referencia, ya que solamente algo más del 60% del total de ocupados en ambas encuestas se clasifican en el mismo intervalo. Por modalidades, no es coincidente en ambas encuestas la información sobre los individuos que no han trabajado (PIC=49,8%). Las modalidades con porcentajes más elevados son la de menos de 15 horas, las 40 horas y 45 horas y más (más del 60% en cada caso). Esta variable no se publica directamente, aunque interviene en la generación de información secundaria en la encuesta.

Igual que en otros casos esta variable puede estar influenciada por los errores de la recogida, pero la falta de consistencia parece estar producida en mayor medida por la información suministrada por el encuestado, que puede ser errónea y depender del informante. Podrían interpretarse así la baja coincidencia de la modalidad "no ha trabajado" y el hecho de que las respuestas de los que no están del mismo modo clasificados puedan desplazarse por las casillas adyacentes a la diagonal o no.

– La consistencia de la variable tipo de contrato de los ocupados asalariados es bastante elevada (ICG=90,5%). Los contratados indefinidos o fijos se clasifican de la misma forma casi siempre (93,7%) y con menor frecuencia los temporales (87%) y en particular las personas sin contrato u otro tipo de contrato (67,1%), que es el problema en esta característica.

Aunque los trabajadores asalariados de este último tipo no tienen mucho peso en la población (unos 32.500 ocupados, en el 1er trimestre de 2002), están sobrestimados en casi un 20% en total por errores de contenido y de cobertura (esto numéricamente supondría unos 6.000 individuos).

Esta modalidad es muy reducida para analizar la falta de coincidencia y el desplazamiento de las modalidades. Los individuos según la EN sin contrato o con contrato de otro tipo, aparecen en la ER con contrato indefinido o con contrato temporal

– Aipatzekoa da erreferentziako astean lan egindako orduak neurtzen dituen aldagaiaren sendotasun baxua, zeren bi inkestetako landunen guztikoaren %60tik goraxe soilik sailkatzen baita tarte berean. Modalitateka, informazioa ez dator bat bi inkestetan, hau da, ez dator bat bi inkestetan lanik egin ez duten gizabanakoei buruzko informazioa (BSE=%49,8). Ehuneko altuagoak dituzten modalitateak 15 ordutik beherakoak, 40 ordukoak eta 45 ordu eta gehiagokoak dira (%60tik gora kasu bakoitzean). Aldagai hori ez da zuzenean argitaratzen, nahiz eta inkestan bigarren mailako informazioaren sorreran esku hartzen duen.

Beste kasu batzuetan bezala, informazio horrek bilketa-erroreen eragina izan dezake, baina sendotasun-eza inkestatuak eskaintzen duen informazioak eragiten bide du neurri handiagoan; izan ere, informazio hori akastuna eta informatzailearen araberakoa izan daiteke. Horrela uler daitezke "ez du lanik egin" modalitateren bat-etortze baxua eta era berean sailkatuta ez daudenen erantzunak diagonalaren ondoko laukitxoetatik mugitzea edo ez.

– Landun alokatuen kontratu-motaren sendotasuna nahiko altua da (=%90,5). Kontratu mugagabe edo finkoak ia beti era berean sailkatzen dira (%93,7), eta maiztasun txikiagoarekin aldi baterakoak (%87), eta bereziki kontraturik gabeko edo bestelako kontratu-motako pertsonak (%67,1), horixe baita arazoa ezaugarri horretan.

Nahiz eta azken mota horretako langile alokatuek ez duten pisu handirik biztanlerian (32.500 bat landun, 2002ko 1. hiruhilekoan) guztira ia %20an daude gainzenbatetsita, eduki- eta estaldura-erroreengatik (horrek zenbakitan 6.000 bat gizabanako hartzen ditu).

Modalitate hori oso txikia da, bat-etortze eza eta modalitateen mugimendua aztertzeko. lAren arabera, kontraturik gabeko edo bestelako kontratu-motako gizabanakoak kontratu mugagabearekin edo aldi baterako kontratuarekin agertzen dira EIn (gutxi

(aproximadamente un 10% en cada caso). Menos de un 10% de los contratados temporales en la EN aparecen como indefinidos en la ER. También un 10% de los temporales en la EN aparece como indefinidos en la ER.

gorabehera %10 kasu bakoitzean). IAko aldi baterako kontratudunetatik, %10etik behera agertzen da mugagabeko gisa EIn. IAko aldi baterakoen %10, gainera, mugagabeko gisa agertzen da EIn.

6. TAULA / 6. TABLA — BJA. ERREPIKAPEN INKESTA / PRA. ENCUESTA DE REPETICIÓN — 2002

**16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA LANDUN ALOKATUA, KONTRATU-MOTARI JARRAIKI, BALIDAZIO-EGITURAREN ARABERA. 2002KO 1. HIRUHILEKOA**
POBLACIÓN DE 16 Y MÁS AÑOS OCUPADA ASALARIADA POR TIPO DE CONTRATO, SEGÚN LA ESTRUCTURA DE VALIDACIÓN. 1ER TRIMESTRE DE 2002

| | | **Erregistro komunak** Registros comunes | | **Erregistro guztiak**/Todos los registros | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **Eduki-erroreak** Errores de contenido | | | **Estaldura-erroreak** Errores de cobertura | | |
| | **Emaitza argitaratuak** Resultados publicados | **SOI** ICG | **BSE** PIC | **Zuzen sailkatuak** Correctamente clasificados | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia |
| **Guztira**/Total | **707,7** | **90,5** | | **83,8** | **8,8** | **8,8** | **0,0** | **7,4** | **7,4** | **0,0** |
| **Mugagabea**/Indefinido | 472,2 | | 93,7 | 88,8 | 6,3 | 6,0 | +0,3 | 4,7 | 5,2 | -0,5 |
| **Aldi baterakoa**/Temporal | 202,9 | | 87,0 | 79,6 | 14,1 | 11,8 | +2,2 | 11,1 | 8,6 | +2,5 |
| **Kontr. gabe/Beste**/Sin cont/otros | 32,5 | | 67,1 | 49,4 | 10,9 | 24,2 | -13,4 | 20,0 | 26,4 | -6,4 |

**Iturria**/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

## 2.5. Características de la población parada: sector de actividad y duración del paro

La aplicación al análisis de la ER al subconjunto de población parada es más limitado, ya que el colectivo se reduce de forma notable, y habrá modalidades con frecuencias excesivamente bajas.

– La clasificación de la población parada en función del sector de actividad (en grandes sectores de actividad económica), divide a este colectivo según la actividad del establecimiento de su último trabajo, y si no ha trabajado nunca aparece en la modalidad "No clasificable, busca primer empleo". El resultado parece aceptable, ya que su Índice de Consistencia Global es del 80,4%, aunque hay que tener en cuenta que las modalidades no tienen frecuencias muy altas (muy obvio en el caso de la agricultura).

– Muestra una consistencia menor que aceptable la variable "duración del paro", ya que sólo se clasifican en la misma modalidad un 57,5% de la población parada. Esta variable se construye a partir del dato directo que se recoge en el cuestionario sobre tiempo de búsqueda de empleo (en meses) de los individuos, clasificados después como población parada.

Se publican en la nota de prensa dos modalidades extremas: la de menos de 6 meses y la de dos y más años, que tienen un porcentaje de coincidencia algo más elevados que el resto. Aunque en general los niveles de las modalidades no son aceptables (inferiores al 80%). Incluso los que según la EN llevan menos de 6 meses buscando empleo, según la ER pueden estar clasificados en todas las demás modalidades, no solo las más próximas.

Aparentemente, no todas las diferencias en la respuesta pueden deberse a un error en la recogida o carga de la información en el cuestionario. Parece más lógico achacar este tipo de error a la dificultad de todas las informaciones con referencias temporales, ya sea debida a fallos de la memoria, o a que conoce la respuesta el interesado y no el informante necesariamente.

## 2.5. Biztanleria langabearen ezaugarriak: jarduera-sektorea eta langabezialdiaren iraupena

EIren analisia biztanleria langabearen azpimultzoari aplikatzea mugatuagoa da, zeren talde hori modu nabarmenean murrizten baita, eta maiztasun baxuegiak dituzten modalitateak egongo dira.

– Jarduera-sektorearen araberako sailkapenak (jarduera ekonomikoaren sektore nagusiak) biztanleria landunaren multzoa azken laneko establezimenduaren jardueraren arabera zatitzen du, eta inoiz lanik egin ez badu, "Sailkaezina, lehen lanaren bila" modalitatean agertuko da. Emaitzak onargarria dirudi, zeren Sendotasun Orokorraren Indizea % 80,4koa baita, nahiz eta kontuan izan behar den modalitateek ez dutela maiztasun oso alturik (oso bistakoa, nekazaritzaren kasuan).

– Sendotasun txikiagoa erakusten du "langabeziaren iraupena" aldagaiak, zeren biztanleria langabearen %57,5 baino ez baita sailkatzen modalitate berean. Aldagai hori gizabanakoen enplegu-bilaketako denborari (hilabetetan) buruzko galdeketan jasotzen den datu zuzenekoan oinarrituz osatzen da, eta gero biztanleria langabe gisa sailkatzen dira.

Prentsa-oharrean muturreko bi modalitate argitaratzen dira: 6 hilabetetik beherakoak eta bi urte eta gehiagokoak. Bi horiek besteek baino bat-etortze ehuneko zertxobait altuagoak dituzte. Baina, oro har, modalitateen mailak ez dira onargarriak (%80tik beherakoak). Are IAren arabera lan bila 6 hilabetetik behera daramatenak ere, EIren arabera, beste modalitate guztietan egon daitezke sailkatuta, eta ez soilik hurbilekoenetan.

Itxuraz, erantzunetan dauden alde guztiak ez dituzte eragin galdeketako informazioaren bilketak eta kargak. Logikoagoa dirudi errore horiek denbora-erreferentziak dituzten informazio guztien zailtasunei egoztea, hau da, oroimen-hutsengatik, edo interesatuak erantzuna jakin eta informatzaileak nahitaez ez jakitegatik.

7. TAULA / 7. TABLA — BJA. ERREPIKAPEN INKESTA / PRA. ENCUESTA DE REPETICIÓN — 2002

**16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA , LANGABEZIALDIAREN IRAUPENARI JARRAIKI, BALIDAZIO-EGITURAREN ARABERA. 2002KO 1. HIRUHILEKOA**
POBLACIÓN DE 16 Y MÁS AÑOS PARADA POR DURACIÓN DEL PARO, SEGÚN LA ESTRUCTURA DE VALIDACIÓN. 1ER TRIMESTRE DE 2002

| | | **Erregistro komunak** Registros comunes | | **Erregistro guztiak**/Todos los registros | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **Eduki-erroreak** Errores de contenido | | | **Estaldura-erroreak** Errores de cobertura | | |
| | **Emaitza argitaratuak** Resultados publicados | **SOI** ICG | **BSE** PIC | **Zuzen sailkatuak** Correctamente clasificados | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia |
| **Guztira**/Total | **81,0** | **57,5** | | **51,8** | **20,9** | **20,9** | **0,0** | **50,4** | **27,3** | **+23,1** |
| **Aurkitu du**/Ya encontró | 1,6 | | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 | -100,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| **6 hilabetetik behera**/Menos de 6 meses | 35,7 | | 69,9 | 57,5 | 12,0 | 24,7 | -12,8 | 28,3 | 17,8 | +10,5 |
| **6-11 hilabete**/meses | 12,3 | | 59,5 | 35,2 | 52,0 | 23,9 | +28,1 | 55,3 | 40,9 | +14,4 |
| **12-23 hilabete**/meses | 11,8 | | 68,7 | 48,9 | 9,2 | 22,3 | -13,1 | 52,8 | 28,9 | +23,9 |
| **24-35 hilabete**/meses | 5,4 | | 100,0 | 100,0 | 57,0 | 0,0 | +57,0 | 45,8 | 0,0 | +45,8 |
| **36 eta gehiago**/ y más | 14,1 | | 83,8 | 38,5 | 6,0 | 7,5 | -1,4 | 112,6 | 54,1 | +58,5 |

**Iturria**/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

## 2.6. Características de la población que busca empleo: gestiones, disponibilidad y tipo de empleo buscado

Algunas de las variables que se mencionan a continuación intervienen en la generación de las características de la relación con la actividad y pueden contribuir a explicar las diferencias en la clasificación de estas características finales que se han comentado en un apartado anterior.

– La pregunta sobre la búsqueda de empleo intervenía hasta 2001 en la clasificación de los individuos como inactivos o parados. La respuesta a esta pregunta directa en el cuestionario (Si/no) tiene un índice de consistencia bastante elevado (94,4%). Los individuos de la modalidad "no buscan" son los que más frecuentemente se clasifican de la misma forma en ambas encuestas (casi un 96%), mientras los de la modalidad "buscan empleo" lo hacen en menor medida (no alcanza el 80%).

La respuesta afirmativa a la pregunta sobre la búsqueda lleva a la pregunta sobre la realización de cualquier tipo de gestiones de búsqueda de empleo en las cuatro últimas semanas, que es la que va a intervenir desde 2002 en la clasificación de los individuos en la relación con la actividad OIT (siguiendo el Reglamento CE). Esta variable tiene un índice de consistencia relativamente bajo (78,9%).

## 2.6. Enplegu bila dabilen biztanleriaren ezaugarriak: kudeaketak, prestasuna eta bilatzen den enpleguaren mota

Ondoren aipatzen diren aldagaietariko batzuek esku hartzen dute jarduerarekiko erlazioaren ezaugarrien sorreran, eta aurreko atal batean aipatu diren amaierako ezaugarrien sailkapenean dauden aldeak azaltzen lagun dezakete.

– Enplegu-bilaketari buruzko galderak, 2001a arte, gizabanakoen sailkapenean (ez-aktibo edo aktibo) esku hartzen zuen. Galdeketako galdera zuzeneko horri ematen zaion erantzunak (bai/ez) sendotasun-indize nahiko altua du (%94,4). "Ez dabiltza bila" modalitateko gizabanakoak dira maiztasun handienaz bi inkestetan era berean sailkatzen direnak (ia %96); "enplegu bila dabiltza" modalitatekoek, berriz, neurri txikiagoan datoz bat (ez da %80era iristen).

Bilaketari buruzko galderari baietz erantzuteak beste galdera batera eramaten du, ea azken lau asteetan enplegu-bilaketako kudeaketarik egin duen galdetzera. Izan ere, 2002tik aurrera, galdera horrek esku hartuko du LANE jarduerarekiko erlazioaren gizabanakoen sailkapenean (EE Erregelamenduari jarraiki). Aldagai horrek sendotasun-indize aski baxua du (%78,9).

8. TAULA / 8. TABLA — BJA. ERREPIKAPEN INKESTA / PRA. ENCUESTA DE REPETICIÓN — 2002

**ENPLEGU BILA DABILEN 16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA, AZKEN LAU ASTEETAN BILAKETA-KUDEAKETAK EGITEARI JARRAIKI, BALIDAZIO-EGITURAREN ARABERA. 2002KO 1. HIRUHILEKOA**
POBLACIÓN DE 16 Y MÁS AÑOS QUE BUSCA EMPLEO POR REALIZACIÓN DE GESTIONES DE BÚSQUEDA EN LAS CUATRO ÚLTIMAS SEMANAS SEGÚN LA ESTRUCTURA DE VALIDACIÓN. 1ER TRIMESTRE DE 2002

| | | **Erregistro komunak** Registros comunes | | **Erregistro guztiak**/Todos los registros | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | **Eduki-erroreak** Errores de contenido | | | **Estaldura-erroreak** Errores de cobertura | | |
| | **Emaitza argitaratuak** Resultados publicados | **SOI** ICG | **BSE** PIC | **Zuzen sailkatuak** Correctamente clasificados | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia | **Faltan** | **Soberan** Sobran | **Aldea** Diferencia |
| **Guztira**/Total | **119,8** | **78,9** | | **57,2** | **15,3** | **15,3** | **+0,0** | **57,4** | **27,5** | **+29,9** |
| **Bai, kudeaketak**/Sí gestiones | 99,8 | | 91,2 | 65,7 | 12,1 | 6,3 | +5,8 | 52,0 | 28,0 | +24,0 |
| **Ez, kudeaketak**/No gestiones | 19,9 | | 20,4 | 15,2 | 31,1 | 59,6 | -28,5 | 84,3 | 25,1 | +59,2 |

**Iturria**/Fuente: **Eustat**. **BJA. Errepikapen Inkesta, 2002ko 1. hiruhilekoa**/PRA. Encuesta de Repetición, 1er trimestre de 2002.

En este caso, el problema está en la modalidad "no realiza", ya que solo el 20,4% de los individuos de la EN en esta modalidad se clasifica igual en ambas encuestas. Esta proporción para los que hacen gestiones es del 91,2%.

Además, habría que sumar a esto los errores de cobertura (de los clasificados anteriormente de forma diferente con relación a la búsqueda de empleo), por lo que se calcula que en los resultados se subestiman los individuos que hacen gestiones (unos 30.000) y los que no hacen con menor importancia (unos 6.000).

- Otra variable importante para la relación con la actividad es la de la disponibilidad para trabajar en un periodo de dos semanas, concretamente, de los individuos que buscan empleo. Según los resultados de la variable (1er trimestre de 2002) la inmensa mayoría de los individuos que buscan empleo parecen estar disponibles para trabajar en el plazo mencionado. El índice de consistencia es muy elevado (superior al 90%).

- También se publica, para la población parada, el tipo de empleo buscado, primero o posterior. En esta variable no hay problemas de clasificación en cuanto al contenido (ICG = 95,5%).

**2.7. Las formas de búsqueda de empleo**

Esta es una característica para toda la población que ha realizado gestiones de búsqueda de empleo. Se genera a partir de una respuesta del cuestionario. Desde el punto de vista de la consistencia, un porcentaje muy bajo de respuestas se clasifica en la misma modalidad en ambas tomas (apenas un 30%). Por una parte, según los resultados publicados, hay modalidades con frecuencias muy bajas, como es el caso de la gestión en el Inem para renovar, o las propias para iniciar la actividad por cuenta propia, o las realizadas en las empresas de trabajo temporal o las oficinas privadas de empleo. Por otra, estas mismas modalidades no tienen ninguna frecuencia en la ER.

Aunque estas distribuciones de frecuencias dificulten la valoración de la consistencia, el hecho es que no hay ninguna modalidad con un porcentaje aceptable de coincidencias, siendo el más elevado el de acudir al Inem a buscar un empleo (56,6%). La falta de consistencia produce problemas de contenido muy notables, de modo que el resultado se desvirtúa.

Igual que ocurre con otras preguntas de este bloque, el problema puede estar en que se trata de información que solo conozca el interesado, y no el informante, a parte de que la consistencia sea más difícil de estimar para estos grupos más pequeños. Estas preguntas han sido introducidas en el cuarto trimestre de 2001, siguiendo la metodología de las Encuestas de Fuerzas de Trabajo a hogares de Eurostat, y en parte los errores puedan estar relacionados con esta novedad. Todo ello plantea una revisión de los ítems de Eurostat para ser adaptados a nuestra encuesta.

Las diferencias en las características relativas a la búsqueda de empleo son las que producen los errores en la relación con la actividad, y en especial el desplazamiento de los individuos parados a la inactividad. Ambas modalidades parten de la población que no ha trabajado en la semana de referencia y la diferencia entre la inactividad y el desempleo está precisamente en que en el último caso cumple las condiciones de que busca trabajo y ha realizado gestiones de búsqueda y está disponible para trabajar.

Kasu horretan, arazoa "ez du egiten" modalitatean dago, zeren IAko gizabanakoen %20,4 baino ez baita sailkatzen berdin bi inkestetan. Kudeaketak egiten dituztenei buruz, proportzio hori %91,2rena da.

Gainera, horri estaldura-erroreak batu beharko litzaizkioke (arestian enplegu-bilaketari buruz era desberdinean sailkatuetatik); hori dela eta, kalkulatzen da kudeaketak egiten dituzten gizabanakoak (30.000 bat) eta garrantzi gutxiagorekin egiten dituztenak (6.000 bat) emaitzetan azpizenbatetsi egiten direla.

– Jarduerarekiko erlazioari buruzko beste aldagai garrantzitsu bat zera da: enplegu bila dabiltzan gizabanakoen bi asteko aldi batean lan egiteko prestasuna, hain zuzen. Aldagaiaren emaitzen arabera (2002ko 1. hiruhilekoa), enplegu bila dabiltzan gizabanako gehien-gehienak aipatutako epean lan egiteko prest bide daude. Sendotasun-indizea oso altua da (%90etik gorakoa).

– Biztanleria langabeari buruz, era berean, bilatzen den enplegu-mota ere argitaratzen da, lehenengoa edo ondorengoa. Aldagai horretan, edukiari dagokionez, ez dago sailkapen-arazorik (SOI = %95,5).

**2.7. Enplegua bilatzeko moduak**

Hau da enplegu-bilaketako kudeaketaren bat egin duen biztanleria guztiari buruzko ezaugarri bat. Galdeketako erantzun batean oinarrituz sortzen da. Sendotasunaren ikuspegitik, erantzunen ehuneko baxu bat modalitate berean sailkatzen da bi datu-hartzeetan (%30 eskas). Alde batetik, argitaratutako emaitzen arabera, maiztasun oso baxuko modalitateak daude, hala nola Inem-en kartila berritzeko egiten diren kudeaketak, edo norbere konturako jarduera hasteari dagozkionak, edo aldi baterako laneko enpresetan edo enplegu-bulego pribatuetan eginak. Bestetik, modalitate horiek berek ez dute inolako maiztasunik EIn.

Nahiz eta maiztasunen banaketa horiek sendotasunaren balioespena zailtzen duten, kontua da ez dagoela bat-etortze ehuneko onargarria duen modalitaterik, eta altuena enplegu bat bilatzera Inem-era joatea da (%56,6). Sendotasun-ezak eduki-arazo oso nabarmenak eragiten ditu, eta, hori dela eta, emaitza desitxuratu egiten da.

Bloke honetako beste galdera batzuekin gertatzen den bezala, arazoa honetan egon daiteke: interesatuak baino ezagutzen ez duen informazioa izatea, eta ez informatzaileak; gainera, sendotasuna zenbatesten zailagoa da talde txikiago horiei buruz. Galdera horiek 2001eko laugarren hiruhilekoan sartuak izan dira, Eurostaten etxeguneetarako Lan Indarraren Inkesten metodologiari jarraituz, eta, neurri batean, erroreak berritasun horrekin erlazionatuta egon daitezke. Horrek guztiak Eurostaten itemak berrikustea suposatzen du, gure inkestara egokitu ahal izateko.

Enplegu-bilaketari buruzko ezaugarrietan dauden aldeek eragiten dituzte, hain zuzen, jarduerarekiko erlazioko erroreeak, eta bereziki gizabanako langabeak aktibotasun-ezera mugitzea. Bi modalitate horiek erreferentziako astean lanik egin ez duen biztanleriatik abiatzen dira, eta aktibotasun-ezaren eta langabeziaren arteko aldea, hain zuzen, azken kasu horretan beharrezko bi baldintzak betetzean datza: lan bila dabil eta bilaketa-kudeaketak egin ditu, eta lan egiteko prest dago.

Relacionado con lo anterior, podemos suponer que este error de clasificación de la modalidad de la población parada puede darse en otras encuestas de fuerzas de trabajo dirigidas a hogares. De hecho, en la Encuesta de Población Activa que realiza el Instituto Nacional de Estadística, el Índice de Consistencia de la Relación de la Actividad es también bastante elevado (90,8%). En el caso de la modalidad de los ocupados, los inactivos e incluso la población contada aparte, la coincidencia es muy elevada (PIC en torno al 93%), pero en el caso de la población parada desciende muy notablemente, ya que solo en el 60,8% de las personas paradas la clasificación es la misma en ambas encuestas.

## 3. Conclusiones

La conclusión principal es que la consistencia de las variables básicas es aceptable en su mayoría: las demográficas y las de relación con la actividad, junto con las propias de la población ocupada son consistentes como mínimo al 90%. Incluso las características que implican codificación son aceptables. Las características menos consistentes son aquellas relacionadas con la búsqueda de empleo y las que reflejan tiempo.

El hecho de que una característica tenga una consistencia aceptable en su conjunto, no excluye que tenga alguna modalidad que sea inestable. Es el caso de los parados, dentro de la relación con la actividad, o de los ayudas familiares, dentro de la situación profesional, o de la modalidad "Sin contrato y otros" dentro del tipo de contrato.

Por errores en la respuesta, se calcula que el número de parados está subestimado en los resultados del primer trimestre en un 22,1%, que suponen unas 20.000 personas que habría que añadir a las ya 80.000 publicadas. También por este mismo motivo (errores en la respuesta) se ha sobrestimado el número de inactivos en un 3,2%, lo que supone unos 30.000 individuos. Como resultado, el número de ocupados también habría que revisarlo al alza y sumarle unas 8.300 personas.

En todo el análisis hay que tener en cuenta que la PRA es una encuesta que se realiza a un panel y que el hecho de preguntar en varios momentos sobre los mismos individuos permite eliminar algunos errores de contenido. Esto puede amortiguar las inconsistencias obtenidas según la ER.

Sobre la cobertura de viviendas e individuos, en la ER el número de incidencias en las viviendas, y por lo tanto el número de sustituciones, ha sido muy superior a las de la EN. En cuanto a la cobertura de individuos, no se ha encuestado siempre a las mismas personas en las viviendas. Del total de individuos encuestados en ambas encuestas, la cobertura en la EN ha sido del 98,4% y en la ER del 99,1%. Aunque esta diferencia pueda deberse a otros motivos (como errores del informante), esto nos lleva a considerar la revisión en el trabajo de campo del uso del término persona residente en la vivienda. También se ha comprobado que el informante ha sido el mismo en ambas encuestas en un 30% de los casos (viviendas).

Además de la consistencia de las variables, en algunos casos se han detectado errores en la cobertura, derivados de la inclusión o no en las diferentes categorías de referencia. Destaca aquí la subestimación del número de ocupados en unas 5.200 personas.

Como consecuencia del resultado del análisis de las características principales de la encuesta, se plantean algunas revisiones en las preguntas del cuestionario: las relativas a la búsqueda de

Aurrekoarekin erlazionatuta, suposa genezake biztanleria langabea modalitatearen sailkapen-errore hori etxeguneei zuzendutako lan-indarrari buruzko beste inkesta batzuetan ere gerta litekeela. Izatez, Espainiako Estatistika Erakunde Nazionalak egiten duen Jarduerarekiko Erlazioaren Sendotasun Indizea ere nahiko altua da (%90,8). Landunak, ez-aktiboak -eta are biztanleria bereiz zenbatua- modalitateetan, bat-etortzea oso altua da (%93 inguruko BSE), baina biztanleria langabearen kasuan oso nabarmen jaisten da, zeren pertsona langabeen %60,8an baino ez baita berdina sailkapena bi inkestetan.

## 3. Ondorioak

Ondorio nagusia zera da: oinarrizko aldagaien sendotasuna onargarria da gehienetan: demografikoak eta jarduerarekiko erlaziokoak, bai eta biztanleria landunari dagozkionak, bat datoz gutxienez %90ean. Are kodeketa suposatzen duten ezaugarriak ere onargarriak dira. Sendotasun gutxieneko ezaugarriak enplegu-bilaketarekin erlazionatuak eta denbora islatzen dutenak dira.

Ezaugarri batek, oro har, sendotasun onargarria izateak ez du salbuesten, besterik gabe, modalitateren bat ez-egonkorra izatea. Langabeen kasuan, jarduerarekiko erlazioaren barruan, edo familia-laguntzen kasuan, lanbide-egoeraren barruan, edo "kontraturik gabe edo beste" modalitatearen kasuan, kontratumotaren barruan.

Erantzun-erroreengatik, kalkulatzen da lehen hiruhilekoko emaitzetan langabeen kopurua %22,1ean dagoela azpizenbatetsita; guztira, 20.000 bat pertsona, zeinak argitaratu diren 80.000ei erantsi beharko bailitzaizkieke. Arrazoi horrengatik berarengatik (erantzun-erroreak) %3,2an gainzenbatetsi da ez-aktiboen kopurua, eta horrek 30.000 gizabanako hartzen ditu. Emaitza gisa, landunen kopurua ere gorantz berrikusi beharko litzateke eta 8.300 pertsona erantsi beharko litzaizkioke.

Analisi guztian kontuan izan behar da BJA panel bati egiten zaion inkesta dela, eta une desberdinetan gizabanako berei buruz galdetzeak eduki-errore batzuk ezabatzea ahalbide dezakeela. Horrek EIren arabera lortutako sendotasun-ezak leundu litzake.

Etxebizitzen eta gizabanakoen estaldurari buruz, EIn etxebizitzetako gorabeheren kopurua -eta, beraz, ordezkapenen kopurua- IAkoak baino askoz handiagoa izan dira. Gizabanakoen estaldurari dagokionez, ez dira beti pertsona berak inkestatu etxebizitzetan. Bi inkestetan inkestatutako gizabanakoen guztizkotik, IAko estaldura %98,4rena izan da, eta EIn, %99,1ena. Nahiz eta alde hori beste arrazoi batzuek eragina izan daitekeen (hala nola informatzailearen erroreak), horrek landa-lanean erabili zen pertsona egoiliarra terminoaren erabilera berrikusi beharrera garamatza. Era berean, egiaztatu da informatzailea berbera izan dela bi inkestetan kasuen %30etan (etxebizitzak).

Aldagaien sendotasunaz gain, zenbait kasutan estaldura-erroreak detektatu dira. Erreferentziako kategoria bakoitza sartzetik edo ez sartzetik datoz errore horiek. Aipatzekoa da hemen landunen kopuruaren azpizenbatespena (5.200 pertsona).

Inkestako ezaugarri nagusien analisiaren emaitzaren ondorioz, berrikuspen batzuk plazaratu dira galdeketako galderetan: enplegu-bilaketari buruzkoak, bereziki bilaketa-kudeaketak eta

empleo, en particular las gestiones de búsqueda y sus formas y las relativas al tiempo o duración (horas de trabajo, duración del paro, etc.). Las características que implican codificaciones también tienen una consistencia aceptable, salvo en el caso de la profesión u ocupación, pero habría que revisar en particular las respuestas de los niveles de instrucción, además de la profesión u ocupación, así como el método de la encuestación y el proceso de la codificación, incluyendo la formación de los agentes.

Con respeto al método de recogida resultaría preciso indagar y evaluar las posibilidades de dirigirse a los subgrupos afectados por problemas de consistencia, además o después de los informantes. La implantación de procedimientos de encuestación-validación longitudinales también podría mejorar la calidad de respuesta.

bilaketen erak, eta iraupenari edo langabezialdiari buruzkoak (laneko orduak, iraupena, etab.). Kodeketak suposatzen dituzten ezaugarriek ere sendotasun onargarria dute, lanbidearen edo okupazioaren kasuan izan ezik, baina bereziki berrikusi beharko lirateke eskolatze-mailei buruzko erantzunak, lanbideari eta okupazioari buruzkoez gain, bai eta inkestatze-lanaren metodoa eta kodeketa-prozesua ere, agenteen prestakuntza ere sartuz.

Bilketa-metodoari dagokionez, beharrezkoa litzateke sendotasun-arazoek erasandako azpitaldeei zuzentzeko aukerak aztertzea eta balioestea, informatzaileez gain edo haien ondoren. Luzerako inkestatze-balidatzeko prozedurak ezartzeak ere erantzunaren kalitatea hobe lezake.

## Bibliografía


Encuesta de Repetición 2002. Población en Relación con la Actividad.

Encuesta de Validación de la Estadística de Población y Vivienda 1996

Encuesta Demográfica y de Validación del Censo de Población y Vivienda 1991

Encuesta Demográfica y de Validación del Padrón 1986

Análisis de resultados de las Encuestas de Repetición de la PRA (4º trimestre de 1984 y 1er trimestre de 1985).

INE. Evaluación de la Calidad de los Datos de la Encuesta de Población Activa. 1985 y 1997. Para más información, Inebase: www.ine.es/inebase/cgi/um

Comisión Europea, Reglamento (CE) 1857/2000 por el que se establecen disposiciones de aplicación del Reglamento (CE) nº 577/98 del Consejo relativo a la organización de una encuesta muestral sobre población activa en la Comunidad por lo que respecta a la definición operativa de desempleo. www.eustat.es/varios/informes/inf1790.pdf

Información sobre la Encuesta de Población en Relación con la Actividad en la página Web de Eustat.

Metodología, definiciones y cuestionario:
www.eustat.es/spanish/general/metod/poblact.html

Tablas de resultados e informes:
www.eustat.es/spanish/estad/temalista.asp?tema=47


## Bibliografia


Errepikapen Inkesta 2002. Biztanleria Jardueraren Arabera.

1996ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren Balidazioko Inkesta

1991ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren Demografiako eta Balidazioko Inkesta

1996ko Erroldaren Demografiako eta Balidazioko Inkesta

BJAren Errepikapen Inkesten emaitzen analisiak (1984ko 4. hiruhilekoa eta 1985eko 1. hiruhilekoa).

INE. Evaluación de la Calidad de los Datos de la Encuesta de Población Activa. 1985 y 1997. Informazio gehiago lortzeko, Inebase: www.ine.es/inebase/cgi/um

Europar Batzordea, 1897/2000 Erregelamendua (EE). Horren bidez Kontseiluaren 577/98 Erregelamendua (EE) betearazteko xedapenak ezarri dira. Kontseiluaren erregelamendu hori Erkidegoko biztanleria aktiboari buruzko laginketa bidezko inkesta bat antolatzeari buruzkoa da, bai eta langabezia zer den definitzeko ere. www.eustat.es/varios/informes/inf1823.pdf

Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkestari buruzko informazioa, Eustaten web-orrian.

Metodologia, definizioak eta galdeketa:
www.eustat.es/euskara/general/metod/poblact.html

Emaitzen taulak eta txostenak:
www.eustat.es/euskara/estad/temalista.asp?tema=47